



**ITURENGO UDALA**  
(Nafarroa)  
31745

José Iparraguirre Altamira  
Eusebio Elizalde Mariezcurrena  
María Cristina Apezteguia Saldias  
Teresa Miqueo Gamio  
Francisco Javier Alchu Iparraguirre

2009ko abuztuaren 20an, arratsaldeko 5etan, Iturengo Herriko Etxean, legez egindako deialdiaren ondorioz, Ohiko Biltzarrean elkartzen dira ondoan aipatzen diren zinegotziak. Iharduneko alkatea den, José M<sup>a</sup> Gorosterrazu Elizalderen lehendakaritzapean, eta idazkaria den, Miguel José Belarra Tellechearen aitzinean, Gai Zerrendan sarturik dauden gai hauek aztertzen dira:

## **1. AURREKO BILKUREKO AKTA IRAKURRI ETA ONETSI.**

Idazkariak azkeneko bilkurako akta irakurri du; ondoren, ahobatez onetsi eta izenpetu dute.

## **2. OBRAK EGITEKO LIZENTZIA ESKAERAK.**

1. J.A.A.ek lizentzia eskatu du Manea etxeko fatxadan leihoa irekitzeko eta garajeko teilatua konpontzeko. Eztabaidatu ondoren, ahobatez erabaki dute obra egiteko lizentzia ematea A. Jn.ari. Obra hasi baino lehen, eraikuntza, instalazio eta obren gaineko zerga ordaindu beharko du. Obraren aurrekontua, 1.653,77 eurokoa da eta ordaindu beharreko diru-kopurua, 49,61 euro.

2. R.S.S.k aurkeztu duen proiektua ikusirik, J.O.L. arkitektoak egindakoa eta 2009ko maiatzaren 6an bisatua; kontutan hartuz Etxebizitza eta Lurraldearen Antolamenduko zuzendari orokorraren 144/2009 Ebazpena; kontutan hartuz ere Etxebizitzako Zerbitzuak eman duela bizigarritasun aurretiko txostena; ahobatez erabaki dute lizentzia ematea R.S.Sri, etxebizitza eraikitzeke lurzoru urbanizaezinean (2. poligonoko 294 eta 538. partzeletan), J.O.L. arkitektoak egindako proiektorearen arabera, baldintza hauekin:

- 144/2009 Ebazpenak eta Chocarro eta Urmeneta arkitektoen txostenak jartzen dituzten baldintzak betetzea.
- Obra hasi baino lehen, eraikuntza, instalazio eta obren gaineko zerga ordaindu beharko du. Obraren aurrekontua, 158.554,29 eurokoa da eta ordaindu beharreko diru-kopurua, 4.756,63 euro.
- Kontutan hartuz Lurraldearen Antolamendu eta Hirigintzari buruzko 35/2002 Foru Legearen 116.3 artikulua jartzen duela "lurzatiaren jabeari dagokion aprobetxamendua 100eko 90ekoa da, gainerako 100eko 10a administrazio titularraren eskutik hartu behar baitu...", edozein jarduketa hasi baino lehen, aprobetxamenduaren %10a ordaindu beharko dio Udalari. Sinatutako hitzarmenaren arabera, 6.458,06 euro dira aprobetxamenduarengatik ordaindu behar dituenak.

3. M.L.V.ek lizentzia eskatu du Jopeitzenea etxean konponketak egiteko (teilatua konpondu, leihoak aldatu, konponketak komuna eta sukaldean). Eztabaidatu ondoren, ahobatez erabaki dute obra egiteko lizentzia ematea L. Jn.ari. Obra hasi baino lehen,



**ITURENGO UDALA**  
(Nafarroa)  
31745

eraikuntza, instalazio eta obren gaineko zerga ordaindu beharko du. Obraren aurrekontua, 39.231,18 eurokoa da eta ordaindu beharreko diru-kopurua, 1.176,94 euro.

4. I.E.H.k lizentzia eskatu du Ignazioenea etxeko garajeko leihoan atea irekitzeko. Eztabaidatu ondoren, ahobatez erabaki dute obra egiteko lizentzia ematea E. Jn.ari. Obra hasi baino lehen, eraikuntza, instalazio eta obren gaineko zerga ordaindu beharko du. Obraren aurrekontua, 900,00 eurokoa da eta ordaindu beharreko diru-kopurua, 27,00 euro.

5. S.A.F.k lizentzia eskatu du Aizpurualdea etxearen gibelaldean daukan ukuiluko (kuadra) leihoan atea irekitzeko. Eztabaidatu ondoren, ahobatez erabaki dute obra egiteko lizentzia ematea A. Jn.ari. Obra hasi baino lehen, eraikuntza, instalazio eta obren gaineko zerga ordaindu beharko du. Obraren aurrekontua, 975,00 eurokoa da eta ordaindu beharreko diru-kopurua, 29,25 euro.

6. J.M.A.V.ek lizentzia eskatu du Matxatxipia etxea erreteilatuta eta pareta konpontzeko. Eztabaidatu ondoren, ahobatez erabaki dute obra egiteko lizentzia ematea A. Jn.ari. Obra hasi baino lehen, eraikuntza, instalazio eta obren gaineko zerga ordaindu beharko du; zerga hori likidatu ahal izateko, aurrekontu idatzia aurkeztu beharko du Udaletxean.

7. Idazkariak irakurri du Etxebizitza eta Lurraldearen Antolamenduko zuzendari orokorraren 853/2009 ebazpena, non, baimena eman dion E.A.R. eta J.M.G.A.ri, etxebizitza eraikitzeke 1. poligonoko 135. partzelan (lurzoru urbanizaezina). Ahobatez erabaki dute sustatzaileari jakinaraztea, obrak egiteko lizentzia lortu ahal izateko, arkitektoak egindako proiektua aurkeztu beharko dutela Udaletxean, behar bezala bisatua, aipatuko ebazpenak jartzen dituen baldintzak betez.

8. S. eta I. M. V.k lizentzia eskatu dute, "Amezitia" parajearen dagoen 1. poligonoko 135. partzelatik, 2.287,88 metro karratu bereizteko. A.C.I. arkitektoak egindako neurketa aurkeztu dute horretarako. Lurzoru urbanizaezinean etxebizitza eraikitzeari zuzentzea da bereizketaren arrazoia, Etxebizitza eta Lurraldearen Antolamenduko zuzendari orokorraren 853/2009 ebazpenak baimendu duen etxebizitza hain zuzen ere. Ekintzak lizentzia behar du, Lurraldearen Antolamendu eta Hirigintzako 35/2002 Foru Legearen arabera. Aipatutakoak kontutan hartuz, aho-batez erabaki dute: lizentzia ematea M. And.ei, "Amezitia" parajearen dagoen 1. poligonoko 135. partzelatik, 2.287,88 metro karratu bereizteko. Lursail nagusiaren gainerakoa, 3.666,53 metro karratuko azalerakin geratuko da. 2009ko otsailaren 26an Udalak hartutako erabakiaren ondorioz, ez da lursail nagusiaren bereizketa berri bat onetsiko.

9. J.M.I.A.k lizentzia eskatu du Argiñenea etxearen ondoan dagoen lursailan 1,20 metroko pareta eraiki eta baranda batekin itxitzeko. Eztabaidatu ondoren, ahobatez erabaki dute obra egiteko lizentzia ematea I. Jn.ari, baldintza hauekin:

- Baranda jarri nahi duen tokian kalea meharra dela kontutan hartuz, eta zirkulazioan eraginik ez izateko, metro bateko tartea utzi beharko du kalearen muga eta barandaren artean.

- Obra hasi baino lehen, eraikuntza, instalazio eta obren gaineko zerga ordaindu beharko du. Obraren aurrekontua, 1.360,00 eurokoa da eta ordaindu beharreko diru-kopurua, 40,80 euro.



**ITURENGO UDALA**  
(Nafarroa)  
31745

10. F.E.A.ek lizentzia eskatu du 3. poligonoko 280. partzelan daukan bordaren ondoan nekazaritza tresnak gordetzeko teilapea eraikitzeko. Kontutan hartuz bordak ez daukala lurrik, 4 aldetik komunalarekin mugatzen bai du, obra egiteko lizentzia ukatzea erabaki dute ahobatez.

Bordaren ondoan lizentziarik gabeko zenbait lan egiten hasi dela ikusirik, obra horiek berehala gelditzeko agindua ematea erabaki dute ahobatez, lursaila lehen zegoen bezala utziz.

11. V. eta J.B.M.k lizentzia eskatu dute, 2. poligonoko 289 eta 920. partzeletan eraiki dituzten 2 etxeen atarietan herri-argiko farolak jartzeko. Eztabaidatu ondoren, ahobatez erabaki dute, herri-argiko 2 farola jartzeko lizentzia ematea B. senidei. Herriko argietan enpresa pribatuak eta partikularrek egindako instalazioak Iturengo Udalak bereganatzeko udal ordenantzaren 13. artikulua dio, lurzoru urbanizaezineko etxebizitza bakoitzean argi-puntu bakar bat jarriko dela. Instalakuntzak arau teknikoak bete beharko ditu.

12. V. eta J.B.M.k obrak egiteko lizentzia eskatu dute, 2. poligonoko 289 eta 920. partzeletan eraiki dituzten 2 etxeak lotzeko herriko saneamenduko sarera, planoan agertzen den puntuan. Eztabaidatu ondoren, ahobatez erabaki dute, obrak egiteko lizentzia ematea B. senidei. Zangak, tutueriak eta loturak ordenantzako arau teknikoak bete beharko dituzte. Obra hasi baino lehen, eraikuntza, instalazio eta obren gaineko zerga ordaindu beharko dute; zerga hori likidatu ahal izateko, aurrekontu idatzia aurkeztu beharko dute Udaletxean.

13. Idazkariak irakurri du Etxebizitza eta Lurraldearen Antolamenduko zuzendari orokorraren 921/2009 ebazpena, non, baimena eman dion J.A.I.U., P.M.B., T.A.I., K.I.M., I.I.M. eta M.Z.S.Si, 2 garaje eta biltegi eraikitzeko 2. poligonoko 533. partzelan (lurzoru urbanizaezina). Ahobatez erabaki dute sustatzaileei jakinaraztea, obrak egiteko lizentzia lortu ahal izateko, teknikari batek egindako proiektua aurkeztu beharko dutela Udaletxean, behar bezala bisatua, aipatuko ebazpenak jartzen dituen baldintzak betez. (Hirigintzako Prozedurari Buruzko Ordenantzaren 15. artikulua)

14. J.A.M.O.k lizentzia eskatu du Sotillenea baserrian atariko porlana kendu eta berria jartzeko, azalera berdinarekin. Naiz eta obra lurzoru urbanizaezinean kokatua egon, dagoen zola aldatzeko lanak direla kontutan hartuz, ahobatez erabaki dute obrak egiteko lizentzia ematea M. Jn.ari. Obra hasi baino lehen, eraikuntza, instalazio eta obren gaineko zerga ordaindu beharko du. Obraren aurrekontua, 29.952,48 eurokoa da eta ordaindu beharreko diru-kopurua, 898,57 euro.

15. J.J.U.A.k, C.M.U.U.en izenean, lizentzia eskatu du, Iturengo Landan dagoen 2. poligonoko 271. partzelatik, 1.558,48 metro karratu bereizteko. J.G.A. injineru agronomoak egindako neurketa aurkeztu du horretarako. Ondoko partzelari gehitzea da bereizketaren arrazoia. Ekintzak lizentzia behar du, Lurraldearen Antolamendu eta Hirigintzako 35/2002 Foru Legearen arabera. Irakurri dute María Urmeneta eta Francisco Javier Chocarro arkitektoek emandako txostena, non aipatzen duten bereizketa ezin dela eskatutako baldintzetan baimendu, arauak hausten dituelako. Aipatutakoak kontutan hartuz, aho-batez erabaki dute eskatutako lizentzia ukatzea U. Jn.ari, araudiaren aurka



**ITURENGO UDALA**  
(Nafarroa)  
31745

dagoelako, bereziki 32/2002 Foru Legearen 112.1 f) artikulua eta 1/2002 Foru Legearen 47 eta 48. artikuluek.

Puntu honetan baimendu diren obrak egiterakoan, baldintza hauek bete behar dira:

- Planeamendurako Arau Subsidiarioak jartzen dutena bete.
- Hirugarrenen eskubideak errespetatu.
- Eskatu den obra baino gehiago ez egitea; espediente zigortzailea irekiko zaie, lizentziarik gabeko obrak egiten dituztenei eta emandako lizentzia betetzen ez dutenei.

### **3. BORONDATEZKO BIRZATIKETA ETA HIRIGINTZA HITZARMENA.**

1. Iturengo Udalak eta Promociones Lindutx Baztan, S.L.k sustatu duten espedientean dauden agiriak eta planoak aztertu dituzte, U.E. 1 unitatea borondatez birzatatuzko. Lurraldearen Antolamenduari eta Hirigintzari buruzko 35/2002 Foru Legearen 168 eta 76. artikuluekin bat etorritz, aho-batez, erabaki dute:

1. U.E. 1 unitateko borondatezko birzatiketa proiektuari hasierako onespina ematea.

2. Akordio hau Nafarroako Aldizkari Ofizialean eta Nafarroako Foru Komunitatean editatzen diren egunkarietan argitaratzea, hogeitun eguneko epean jendaurrean egoteko.

3. Jendurreko informazioaldian agiriaren aurkako alegaziorik ez aurkeztuz gero, onspen hau behin betikotzat joko da.

2. Espedientean dauden agiriak aztertu eta gero, kudeaketako hirigintza hitzarmenari buruzkoa, U.E. 1 unitatearen esparruan lagatu beharreko %10 eskudirutan ordaintzeko, Lurraldearen Antolamenduari eta Hirigintzari buruzko abenduaren 20ko 35/2002 Foru Legearen 25. artikuluan ezarritakoari jarraituz, aho-batez, erabaki dute:

1. Hirigintza hitzarmenari hasierako onspina ematea.

2. Akordio hau Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratzea, hogeitun egun balioduneko epean jendaurrean egoteko.

### **4. BAKE EPAILE ORDEZKOA.**

Espedientean dauden agiriak aztertu ondoren, Botere Judizialari buruzko uztailaren 1eko 6/1985 Lege Organikoaren (uztailaren 2ko Estatuko Aldizkari Ofiziala) 101. artikuluan eta hurrengoetan, baita Bake Epaileri buruzko ekainaren 7ko 3/1995 Erregelamenduaren (1995-7-13ko Estatuko Aldizkari Ofiziala) 5, 6 eta 7. artikuluetan xedatutakoari jarraituz, ahobatez –arazko quoruma-, erabaki dute:

1. Irune Bazterrika Etxenike hautatzea Bake Epaille Ordezkoa bezala.



**ITURENGO UDALA**  
(Nafarroa)  
31745

2. Erabaki hau jakinaraztea interesatuari eta Nafarroako Auzitegi Nagusiari.

**5. ZENBAIT ESKAERA.**

1. J.M.A.V.ek alertze batzuk eskatu zituen, borda baten teilatua konpontzeko. Basozainak egindako balorazioa irakurri du idazkariak. Eztabaidatu ondoren, ahobatez erabaki dute 36 alertze ondo saltzea eskatzaileari, 21 metro kubiko egiten dutenak, 252 eurotan. Mendaurreko urtegiaren gainekoaldean markatu dire alertze hauek.

2. J.G.B.k baimena eskatu du 2. poligonoko 225. partzela itxitzeko pikete eta alambreekin. Eztabaidatu ondoren, itxitzeko baimena eman diote ahobatez G. Jn.ari, hirugarrenen eskubideak eta bideak errespetatzeko baldintzapean eta itxiera bere mugaren barrenetik egin beharko duela ohartaraziz.

3. J.G.B.k baimena eskatu du 2. poligonoko 280. partzela itxitzeko harrizko paretarekin. Gai honi buruzko erabakia hartu baino lehen, José M<sup>a</sup> Gorosterrazuk ondoko hau adierazi du, gaizki-ulertuak argitzeko: partzela honekin dagoen gatazka aspaldidanik dator; bera alkatea zela, bidea zabaltzeko behar zen lurra erostea proposatu zion, baina G. Jn.ak eskatutako gehiegizko prezioak galarazi zuen tratua. Eztabaidatu ondoren, itxitzeko baimena eman diote ahobatez G. Jn.ari, hirugarrenen eskubideak eta bideak errespetatzeko baldintzapean eta itxiera bere mugaren barrenetik egin beharko duela ohartaraziz. Katastroko teknikariek egindako neurketa errespetatu beharko du ere.

4. Aho-batez erabaki dute 310 euroko diru-laguntza ematea Iturengo eskolari, ibilaldia egiteko.

5. J.R.B.M. eta beste batzuk aurkeztu duten idazkia irakurri du idazkariak; bertan, zenbait azalpen eskatzen dituzte Iturengo gas-hornidurari buruz eta hauek argitzeko batzarra antolatzea eskatu dute. Gaia eztabaidatu ondoren, ondoko hau jakinaraztea erabaki dute ahobatez:

1. Udalak ez du ikusten gai honi buruz batzarra ospatzeko beharrik. Gai honi buruzko azalpen edo informazioa eskatu duen guztiari eman zaio Udaletxean eta horrela jarraituko da aurrerantzean ere.

2. Hauek dira idazkian egin dituzten galdera zehatzei erantzunak:

- Afera honetan Udalaren eginkizuna izan da, herritarrak horrela eskatu bai zuten, gas-hornidura lortu ahal izateko obrak, tramiteak etab. kudeatzea, obra horiek ordaintzea eta obren kostua gasa hartu dutenen artean banatu eta kobratzea. Aipatutakoa gauzatzeko sinatu zen hitzarmen bat Repsol Butano eta Udalaren artean, eta kostua banatu eta kontribuzio berezia kobratzeko onetsi zen ordenantza fiskala 2007ko abenduaren 12an, jendaurrean egon zena Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu ondoren (N.A.O. 19, 2008-02-11). Guzti honen berri eta ordaindu beharreko diru-kopurua jakinarazi zitzaion interesatu bakoitzari, 2008ko urtarrilaren 18ko idazkian, erabaki horren aurka jartzen ahal ziren errekursoak aipatuz ere. Ez zuen inork erreklamaziorik egin.

- Udalak jarraituko du aurrerantzean gaia kudeatzen eta bi azalpen egin behar dira puntu honetan: bat, gas-hornidurako sarearen jabetza ez



**ITURENGO UDALA**  
(Nafarroa)  
31745

da Udalarena, Repsol Butanorena baizik; bi, aipatu den hitzarmenaren ondorioz, elkarrekiko lankidetzan dago Udala eta Repsol Butanoren artean. Lankidetzan honen ondorioz, Udalak eskatuko dio enpresa horri aurrerantzean egiten dituen gas-hartune berrien zerrenda, eta bezero berri horiei kobratuko die obraren kostuari dagokion zenbatekoa. Hartutako diru-kopurua oraingo hartune guztien artean hainbanatuko da eta bakoitzari tokatzen zaion zenbatekoa itzuli.

- Aipatu den bezala, ordainketen kontrola Udalak eraman du eta horrela jarraituko du aurrerantzean.

- Hartuneen zerrenda aipatu den ordenantza fiskalean dago eta kopia bat erabaki honen jakinarazpenari atxikiko zaio.

- Bigarren ordainketan eman den igoeraren arrazoia azaldu zen interesatu guztiei 2009ko apirilean bidalitako idazkian. Dena den, ez bada argi gelditu, hona hemen: 2007 urtean estimatu zen gas-hornidura jartzea 57.750,00 euro kostatuko zela eta 70 izango zirela hartuneak, eta datu horien arabera egin zen banaketa; lanak bukatu eta gero egiaztatu da gastua 62.145,55 eurotara igo dela eta behin-betiko hartuneak 67 izan direla. Horrela atera da behin-betiko zifra, 927,55 euro hartune bakoitzarentzat.

6. J.G.A.k aurkeztu duen idazkia irakurri du idazkariak. Bertan eskatu du plazaren hurbilean kontenedore horia jartzea eta Elizako aparkalekua konpontzea. Aparkalekua konponduta dagoela adierazi dute eta erabaki dute Latsagako zubian jartzeko eskatu zen kontenedorea erreklamatzeko Mankomunitateari.

7. Iturengo eskolatik eskatu dute kontenedore urdin bat jartzea eskola-atarian. Malerrekako Mankomunitateari kontenedorea eskatzea erabaki dute.

8. Iturengo eskolako zuzendariak aurkeztu duen idazkia irakurri du idazkariak, "Uraren Bidea" izeneko pasealekuan zenbait balango itxita daudela adieraziz. Gaia eztabaidatu ondoren eta pasealeku horrekin lotuta dauden zenbait gai konpontzeko daudela kontutan hartuz, José M<sup>a</sup> Gorosterrazuk eta María Cristina Apezteguiak hartu dute ardura Mitxeltenekobordako eta Palazioko jabeekin konponbide bat adosteko.

9. J.L.V.ek aurkeztu duen idazkia irakurri du idazkariak, Landako bidean zuloak daudela adieraziz eta bidea konpontzeko materiala Udalak emango balu, konponketa lanak berak egitea proposatuz. Etabaidatu ondoren, kontutan hartuz L. Jn.ak aipatzen duen bidearen zatian Udalak ez duela konpontzeko beharrik ikusten, bere borondatea zuloak tapatzea baldin bada, lana hori egiteko baimena eman diote, baina jabetza pribatuak ez ukitzeko baldintzapean. Udalak ez du materialik jarriko.

10. B.A.B.k idazkia aurkeztu du, herrikoa den 2. poligoko 214. partzelatik sarrera bat irekitzeko Landa aldera. Etabaidatu ondoren, Nafarroako Gobernu Bideen Sailari txostena eskatzea erabaki dute ahobatez, errepideari sarrera berri hau irekitzeko aukerari buruz.

11. M.V.E.A.k aurkeztu duen idazkia irakurri du idazkariak, herrikoa den 1. poligoko 45. partzela txukundu beharra dagoela adieraziz eta porlana Udalak emango balu, konponketa lanak berak egitea proposatuz. Etabaidatu ondoren, kontutan hartuz porlana bota duela ia, eta honek suposatzen duela Udalaren baimenik gabe lanak egin dituela herri-lurzoru batean, Udalak ez du materialik jarriko.



**ITURENGO UDALA**  
(Nafarroa)  
31745

12. A.M.E.A.ek aurkeztu duen idazkia irakurri du idazkariak. Bertan eskatzen du Aurtizko Ostatuko errentamendu kontratua berrikustea, errentaren prezioa jaitsiz. Gaia eztabaidatu ondoren, ahobatez erabaki dute:

1. Etxea pintatu duela kontutan hartuz, eta 2008ko 4. hiruhilabeteko faktura (2008/98/1274 erreziboa) 1.740,00 eurokoa, ordaindu gabe dagoela ikusirik, faktura hori ordaindutzat emango da, egindako lanen truke.

2. Aipatzen du mantenimendu gastu asko egin dituela Ostatuan eta argitu nahi diote errentamendu kontratuko 4. puntuak diola mantenimendu gastuak bere gain direla.

3. Errenta jaitsitzeari buruz esan beharra dago ez zitziola errenta eguneratu aurren, KPIren igoera aplikatuz. Urteko KPIa jaitsitzen baldin bada, portzentai horretan jaitsiko zaio errenta datorren urtean.

4. Kafetera berria erosi duela dio. Tresna horren faktura aurkeztu beharko du Udaletxean gaia aztertzeko.

13. F.J.S.A.ek aurkeztu duen idazkia (sarrera zka. 722/2009) ezagututzat eman dute.

## **6. ALKATE JN.AREN EBAZPENAK.**

Alkateak emandako ebazpen hauek ezagututzat eman dituzte: 2009ko ekainaren 18koa, Construcciones Izarra S.A. enpresak . “Eraikina kontsolidatu eta birgaitzea Iturengo mediku kontsultarako” izeneko lanak egiteko segurtasun plana onetsi zuena; 2009ko uztailaren 13koa, zenbait katastroaren aldaketa tramitatzeari buruz; 2009ko abuztuaren 5koa, non, José M<sup>a</sup> Gorosterrazuri esku eman zion Alkatea ordezkatzeko eri dagoen bitartean.

## **7. HERRIKO GAIEI BURUZKO INFORMAZIOA.**

1. Ondoren, ezagututzat eman dituzte agiri hauek: Herri-Osasuneko Institutuak bidali dituen ur-analisen emaitzak; Kantauriko Ur-Konfederazioak emandako ebazpena, 2009ko ekainaren 12koa, S.B.ri egurtegia eraikitze baimena eman diona; Kantauriko Ur-Konfederazioak emandako ebazpena, 2009ko ekainaren 19koa, Iturrarana eta Aurtizko errekek garbitzeko baimena eman duena; Komunaleko Sailak eman duen txostena J.M.S.ek finkak inskribatzeko edikto bati buruz; Industri Mankomunitateko akta, 2009ko ekainaren 12ko bilkurakoa, zeinean erabaki zen Mankomunitatea desegitea.

2. 2009/2010 kanpainan Iturengo komunalean burutu behar diren baso lanen proiektua onetsi dute ahobatez.

3. Doneztebeko Osasun-Eskolako Komisioak eskolan egindako errebisioari buruzko txostena Hezkuntza Departamentuari bidaltzea erabaki dute.



**ITURENGO UDALA**  
(Nafarroa)  
31745

4. Amezti bidean gero eta kamioi handiagoak ibiltzen direla ikusirik, 2 seinale jarriko dira bidean, 10 tonako pisura mugatzen dutenak.

#### **8. ESKAERAK ETA GALDERAK.**

Ez dira egin.

Eta bertzerik ezean, gaueko 9ak direnean, alkate Jn.ak bilera akitutzat eman du, eta nik, neronek, idazkaria naizenez, ziurtatzen dut.